

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1896/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, 2006ko abenduaren 12koa, Europan gainbegiratze-prozesu bat ezartzen duena.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : « *Reglamento (CE) n° 1896/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de diciembre de 2006, por el que se establece un proceso monitorio europeo* » (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 399 de 30/12/2006, pg. 1*)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(Egintza hauek argitaratu egin behar dira, aplikagarriak izan daitezzen)

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1896/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, 2006ko abenduaren 12koa, Europar gainbegiratze-prozesu bat ezartzen duena.

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, hartako 61. artikuluko c) idatz-zatia,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Tratatuko 251. artikuluan ⁽¹⁾ araututako prozedurari jarraiki,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Erkidegoak pertsonen zirkulazio askea bermatuko duen askatasun-, segurtasun- eta justizia-eremu bat mantentzea eta garatzea hartu du helburutzat. Eremu hori apurka-apurka sortuz joateko, Erkidegoak, besteak beste, barne-merkatua ongi funtzionatzeko beharrezko neurriak hartu behar ditu arlo zibileko lankidetzaren esparruan, eta neurri horiek mugaz gaindiko eragina izan behar dute.

(2) Tratatuko 65. artikuluko c) idatz-zatiak dioenari jarraiki, neurri horiek barnean hartu behar dute prozedura zibilen funtzionamendu onerako oztupoak kentzea, eta, beharrezkoa izanez gero, estatu kideetan aplikatu daitezkeen prozesu-arau zibilen bateragarritasuna sustatu behar dute.

(3) Kontseilu Europarrak 1999ko urriaren 15ean eta 16an Tamperen egindako bileran, Kontseiluari eta Batzordeari eskatu zitzaizen beste legedi bat egin zezatela, lankidetzaren bidea leuntzeko eta justiziarako sarrera hobetzeko erabakigarriak diren zenbait alderditan, eta, testuinguru horretan, berariaz aipatu zituen ordainketa-errekerimenduak.

(4) 2000ko azaroaren 30ean, Kontseiluak Batzordearen eta Kontseiluaren programa bateratu bat onartu zuen; programa horretan arlo zibileko eta merkataritza-arloko ebazpen judizialak elkarri ezagutzeko printzipioa aplikatzeko neurriak jasotzen ziren ⁽²⁾. Erkidegorako prozedura espezifiko, uniforme edo bateratu bat ezartzeko aukera aurreikusten du programak, esparru jakin batzuetan –aurka egin ez zaien kredituena barne– ebazpen judizial bat lortzeko. Hori Hagako Programaren bidez garatu zen –Kontseilu Europarrak 2004ko azaroaren 5ean onartua–, Europako gainbegiratze-prozesuari lotutako lanetan eraginkorki jarraitzearen alde egiten baitzuen.

(5) 2002ko abenduaren 20an, Batzordeak Europako gainbegiratze-prozesuari buruzko Liburu Berdea onartu zuen, bai eta munta gutxiko auziak errazteko eta azkartzeko neurriak ere. Liburu Berdeak bide eman zuen aurka egin ez zaien kredituak kobratzeko europar prozedura uniforme edo bateratu batek izan litzakeen helburuez eta ezaugarriez kontsulta egiteko.

(6) Eztabaida juridikorik pizten ez duten ordaindu gabeko kredituen kobratze azkar eta eraginkorrak funtsezko garrantzia dauka Europar Batasuneko eragile ekonomikoentzat, berankortasuna baita enpresen –bereziki enpresa txiki eta ertainen– iraupena arriskuan jartzen duen kaudimen ezaren arrazoi nagusietako bat, eta lanpostu ugari galtzea ekartzen du.

¹ EO C 221, 2005.9.8koa, 77. or.

² Europako Parlamentuaren irizpena, 2005eko abenduaren 13koa (oraindik argitaratu gabea Egunkari Ofizialean); Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2006ko ekainaren 30ekoa (oraindik argitaratu gabea Egunkari Ofizialean); eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2006ko urriaren 25ekoa. Kontseiluaren 2006ko abenduaren 11ko erabakia.

³ EO C 12, 2001.1.15ekoa, 1. or. 2006.12.30 EU Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 399/1

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(7) Estatu kide guztiak ahaleginak egiten dituzte aurka egin ez zaien kredituen kobrantza masiboaren arazoa konpontzeko, eta gehienek gainbegiratze-prozesu sinplifikatu bat erabiltzen dute, baina nazioetako araudien edukia eta prozedurak nabarmen aldatzen dira. Gainera, gaur egun dauden prozedurak, askotan, onartezinak edo erabiltezinak dira mugaz gaindiko arazoetan.

(8) Alde batetik, mugaz gaindiko aferetan aurrekoaren ondorioz justizia eraginkorra izateko dauden eragozpenak eta, bestetik, zenbait estatu kideetan hartzekodunen eskura jarritako prozesu-bitartekoen funtzionamenduan dauden desoreken ondorioz barne-merkatuan gertatzen diren konkurrentzia-desitxuratzak direla eta, beharrezkoa da erkidego-legedia izatea, Europar Batasun osoan baldintzen berdintasuna bermatzeko hartzekodunei eta zordunei.

(9) Erregelamendu honen xedea da aurka egin ez zaien diru-kredituei lotutako mugaz gaindiko arazoen auzi-kostuak sinplifikatzea, azkartzea eta murriztea, Europako gainbegiratze-prozesua ezarriz, eta estatu kide guztietan zehar europar ordainketa-errekerimenduek zirkulazio librea izan dezaten onartzea, gutxieneko arau batzuk ezarriz, arau horiek beteta beharrezkoa izan ez dadin bitarteko betearazte-prozesu bat izatea betearazpena egin beharrezkoa den estatu kidean, kreditua aitortu eta bete baino lehen.

(10) Erregelamendu honen bidez ezarritako prozesuak bitarteko osagarri eta hautazkoa izan behar du demandatzailearentzat, eta berekin dakar askatasun osoa izatea zuzenbide nazionalean ezarritako prozeduretara jotzeko. Hortaz, erregelamendu honek ez ditu ordeztzen edo bateratzen aurka egin ez zaien kredituak kobratzeko zuzenbide nazionalean dauden mekanismoak.

(11) Organo jurisdikzionalen eta alderdien arteko komunikazioetarako, inprimakiak erabili behar dira ahal den neurrian, prozesuaren kudeaketa errazte aldera eta datuen prozesamendu automatikoa posible izan dadin.

(12) Ordaintzeko europar errekerimendua egiteko eskumena duten organo jurisdikzionalak zein diren erabakitzean, estatu kideek guttiz kontuan hartu behar dute justizia baliatu ahal izatea bermatzeko beharra.

(13) Ordaintzeko europar errekerimenduaren eskaeran, demandatzaileak zorra argi eta garbi zehaztu eta justifikatzeko behar adina informazio eman behar du, demandatuak jakinaren gainean erabaki dezan haren aurka egin edo ez.

(14) Horiek horrela, demandatzaileari eskatu behar zaio zorra egiaztatzeko frogabidearen deskribapena egiteko. Horretarako, diru-zorrak egiaztatzeko aurkeztu ohi diren frogabideen zerrenda ahalik eta zehatzena jaso behar da eskaera-inprimakian.

(15) Ordaintzeko europar errekerimendu-eskaera bat aurkezteak berekin ekarri behar du aplikatu daitezkeen tasa judizialen ordainketa.

(16) Organo jurisdikzionalak eskaera-inprimakian jasotako informazioan oinarrituta aztertu behar du eskaera, eskumenaren arazoa eta frogabideen deskribapena barne. Horrenbestez, organo jurisdikzionalak *prima facie* aztertu ahal izango lituzke eskaeraren oinarriak eta, besteak beste, eta eskaera nabarmenki funtsgabeak baztertu. Ez da beharrezkoa epaile batek egitea azterketa hori.

(17) Ez da aukerarik izan behar eskaeraren gaitzespenaren aurka errekurtsoa jartzeko. Horrek, ordea, zuzenbide nazionalari jarraiki, ez du baztertzen eskaera gaitzesteko erabakiaren aurka maila bereko organo jurisdikzional batean errekurtsoa jartzeko aukera.

(18) Ordaintzeko europar errekerimenduan demandatuari jakinarazi behar zaio baduela aukera zehaztutako zenbatekoa demandatzaileari ordaintzeko, edo, zorraren aurka egin nahi badu, 30 eguneko epean aurkakotasun-idazkia bidaltzeko. Demandatuari, demandatzaileak kredituaz emandako informazio guztia emateaz gain, ohartarazi behar zaio zenbaterainoko garrantzi juridikoa duen ordaintzeko europar errekerimenduak eta, bereziki, zer ondorio dituen aurka ez egiteak.

(19) Estatu kideen artean prozesu-arau zibiletan eta, bereziki, dokumentuen jakinarazpena arautzen dutenetan dauden desberdintasunen ondorioz, beharrezkoa da Europako gainbegiratze-prozesuaren testuinguruan aplikatuko lirakeen gutxieneko arauen definizio espezifiko eta zehaztua egitea. Berezi, ordaintzeko europar errekerimenduaren jakinarazpena egiteko, ez da nahikotzat hartuko gutxieneko arau horiek betetzearen legeko fikzioaren batean oinarrituta dagoen inolako dokumenturik.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(20) 13. eta 14. artikuluetan azaldutako jakinarazpen-metodo guztiek ezaugarritzat dute erabateko ziurtasuna eskaintzea (13. artikulua), edo, bestela, bidali dioten jakinarazpen-dokumentua jasotzaileak hartu duelako probabilitatea handia izatea (14. artikulua).

(21) Demandaturia ez diren beste pertsona batzuei egindako jakinarazpen pertsonalak 14. artikuluko 1. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan adierazitako baldintzak betetzen dituela ondorioztatzeko, nahitaezkoa izango da pertsona horiek benetan onartzea edo jasotzea ordainketa egiteko europar errekerimendua.

(22) Honako kasu hauetan aplikatu behar da 15. artikulua: demandatuak ezin duenean bere burua organo jurisdikzional baten aurrean ordezkatu (hori da pertsona juridikoen kasua); pertsona hori ordezkatzeko baimena zein pertsonak duen legeak zehazten duenean; eta demandatuak beste pertsona bati, bereziki abokatu bati, eman dionean baimena dena delako prozesu judizial espezifikoko horretan ordezkari dezan.

(23) Erregelamendu honetan agertzen den inprimakia baliatuta aurkez dezake demandatuak bere aurkakotasun-idazkia. Hala ere, organo jurisdikzionalak kontuan hartu behar dute aurkakotasuna argi adierazten duen bestelako edozein idazki.

(24) Epearen barruan aurkeztutako aurkakotasun-idazkiak europar gainbegiratzeko-prozesua amaitu behar du, eta afera prozesu zibil arruntera automatikoki eramatea eragin, salbu eta, hipotesi horretan, demandatzaileak berriaz eskatzen badu prozedurari amaiera ematea. Erregelamendu honen ondorioetarako, prozesu zibil arruntaren kontzeptua ez da nahitaez interpretatu behar zuzenbide nazionalaren arabera.

(25) Aurkakotasun-idazkia aurkezteko epea bukatu ondoren, demandatuak, salbuespeneko kasuetan, eskubidea izan behar du ordaintzeko europar errekerimenduaren berrikuspena eskatzeko. Salbuespeneko kasuetako berrikuspenak ez du inola ere esan nahi demandatuak beste aukera bat duenik eskaerari aurka egiteko. Berrikusteko prozesuan zehar eskaeraren oinarriak ez dira ebaluatu behar demandatuak argudiatutako salbuespeneko inguruabarren ondorio ez diren beste arrazoi batzuk kontuan hartuta. 20. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren gainerako salbuespen-inguruabarren barruan egon daiteke sartuta beste hau ere: ordaintzeko europar errekerimendua gezurrezko informazioan oinarrituta egon daitekeela, alegia, eskaera-inprimakian jasotako gezurrezko informazioan.

(26) 25. artikuluan adierazitako tasa judizialek ez dituzte barruan hartu behar, adibidez, abokatuen ordainsariak, edo organo jurisdikzionalak besteko entitate batek dokumentuak jakinarazteko egindako gastuak.

(27) Estatu kide batean egindako edozein europar ordainketa-errekerimendua, indar betearazlea hartu badu, betearazpenaren ikuspegitik, betearazteko eskatzen den estatu kidean egina izan balitz bezala hartu behar da. Estatu kideetako justizia-administrazioen elkarrekiko konfiantza-printzipioak justifikatzen du estatu kide bateko organo jurisdikzionalak ontzat ematea ordaintzeko europar errekerimendua bat eta iriztea betetzen dituela gainerako estatu kide guztietan betearazia izateko bete behar dituen baldintza guztiak, betearazia izan behar duen estatu kideko organo jurisdikzionalak estatu horretako gutxieneko prozesu-arauak zuzen aplikatzen direla berrikusi beharrik gabe. Inola ere alde batera utzi gabe Erregelamendu honetako xedapenak (bereziki 22. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan eta 23. artikuluan jasotako gutxieneko arauak), ordaintzeko europar errekerimenduaren betearazpen-prozedurek zuzenbide nazionalaren arabera izaten jarraitu behar dute.

(28) Epeak kalkulatzeko, Kontseiluaren 1971ko ekainaren 3ko 1182/71 Erregelamendua (EEE, Euratom) aplikatu behar da, epeetan, datetan eta baldintzetan aplikatu daitezkeen arauak zehazten baititu⁽¹⁾. Horretaz ohartarazi behar zaio demandatuari, eta jakinarazi behar zaio kontuan hartuko direla ordaintzeko europar errekerimendua egiten duen organo jurisdikzionala kokatuta dagoen estatu kideko jaiegunak.

(29) Kontuan hartuta estatu kideek ezin dutela behar bezala lortu erregelamendu honen helburua, hau da, aurka egin ez zaien diru-kredituak kobratzeko mekanismo uniforme, azkar eta eraginkor bat ezartzea, eta, beraz, kontuan hartuta mekanismo hori, Erregelamenduaren norainokoaren eta eraginaren ondorioz, hobeto lor daitekeela erkidego-mailan, Erkidegoak neurriak har ditzake, Trataturako 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioaren arabera. Artikulu

¹ EOL 124, 1971.6.8koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

horretan aipatutako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, erregelamendu honek helburu hori lortzeko beharrezkoa dena baino ez du jasotzen.

(30) Bidezkoa da Erregelamendu hau betearazteko behar diren neurriak onartzea 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren arabera. Erabaki horretan dago zehaztuta zein prozedura erabili behar dituen Batzordeak berari dagozkion eskumenak betearazteko ⁽¹⁾.

(31) Erresuma Batuaren eta Irlandaren jarrera dela eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europako Erkidegoa Eratzen duen Tratatuari erantsitako Protokoloko 3. artikuluari jarraiki, Erresuma Batuak eta Irlandak erregelamendu hau erabakitzen eta aplikatzen parte hartzeko nahia jakinarazi dute.

(32) Danimarkaren jarrera dela eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuari erantsitako Protokoloko 1. eta 2. artikuluei jarraiki, Danimarkak ez du parte hartzen erregelamendu hau erabakitzeke orduan, eta, gainera, erregelamenduak ez du lotzen, eta ezin zaio aplikatu.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Xedea

1. Erregelamendu honen xedea hau da:

a) aurka egin ez zaien diru-kredituei lotutako mugaz gaindiko arazoetan auzi-kostuak gutxitzea eta haien gaineko erabakia erraztea eta azkartzea, Europan gainbegiratze-prozesu bat ezartzearen bidez, eta

b) Ordaintzeko europar errekerimenduek estatu kide guztietan zirkulazio librea izan dezaten onartzea, gutxieneko arau batzuk ezarri, arau horiek beteta ez dadin beharrezkoa izan aitortpena eta betetzea egin baino lehen betearazpena egitekoa den estatu kidean bitarteko prozesu bat izatea.

2. Erregelamendu hau ez da oztopo izango demandatzaile batek kreditu bat –4. artikuluko definizioaren arabera– estatu kide bateko zuzenbideari edo erkidego-zuzenbideari jarraiki erabakitako beste prozesu bat erabiliz erreklamatzeko.

2. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Erregelamendu hau arlo zibileko eta merkataritza-arloko mugaz gaindiko arazoetan aplikatuko da, organo jurisdikzionalaren izaera edozein izanda ere. Zehazki, ez ditu barnean jasoko zerga-, aduana- eta administrazio-gaiak, ez eta Estatuak, egiteagatik edo ez egiteagatik, bere aginpidearen erabileran erantzule bihurtzen den kasuak («*acta iure imperii*»).

2. Erregelamendua ez da aplikatuko honako hauetan:

a) ezkontzaren ondasun-eraentzetan, testamentuetan eta oinordetzetan;

b) Porrotetan, enpresen edo kaudimenik gabeko beste pertsona juridiko batzuen likidazio-prozeduretan, porrot egin duenaren eta hartzekodunen arteko hitzarmenetan eta antzeko gainerako prozeduretan;

c) gizarte-segurantzian;

d) kontratuz kanpoko betebeharretatik eratorritako kredituetan, salbu eta:

i) aldeek akordioa lortu badute haiei buruz, edo zorra aitortu bada, edo

¹ EO L 184, 1999.7.17koa, 23. or. Beste honek aldatu zuen erabaki hori: 2006/512/EE Erabakiak (EO L 200, 2006.7.22koa, 11 or.)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ii) jabe-erkidego batetik eratorritako zor likidoi badagozkie.

3. Erregelamendu honetan edozein estatu kide hartuko da «estatu kideztat», Danimarka izan ezik.

3. artikulua

Mugaz gaindikoa arazoak

1. Erregelamendu honen ikuspuntutik arazo bat mugaz gaindikotzat hartzeko, nahitaezkoa izango da gutxienez aldeetako batek egoitza edo ohiko bizilekua izatea eskaera aurkeztu zaion organo jurisdikzionalari dagokion estatu kidea ez den beste edozein estatu kideetan.

2. Egoitza Kontseiluaren 2000ko abenduaren 22ko 44/2001/EE Erregelamenduko 59. eta 60. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da; erregelamendua eskumen judizialari eta arlo zibilean eta merkataritza-arloan ebazpen judizialak aitortu eta betearazteari buruzkoa da (¹).

3. Ordaintzeko europar errekerimendu-eskaera bat erregelamendu honen arabera aurkezten den una izango da arazo bat mugaz gaindikoa den erabakitzeke uneko egokia.

4. artikulua

Europako gainbegiratze-prozesua

Europako gainbegiratze-prozesua ezartzen da, zenbateko jakinekoak diren, epea bukatuta duten eta ordaintzeko europar errekerimendu-eskaera aurkezten den egunean galdagarriak diren diru-kredituak kobratzeko.

5. artikulua

Definizioak

Erregelamendu honetan, definizio hauek erabiliko dira:

- 1) «Jatorriko estatu kidea»: ordaintzeko europar errekerimendua egiten den estatu kidea;
- 2) «betearazpena egiteko estatu kidea»: ordaintzeko europar errekerimendua zein estatu kideetan betearaztea eskatzen den, huraxe;
- 3) «organo jurisdikzionala»: Ordaintzeko europar errekerimenduez arduratzeko edo antzeko beste edozein arazotarako eskumena duen estatu kide bateko edozein agintari;
- 4) «jatorriko organo jurisdikzionala»: ordaintzeko europar errekerimendua egiten duen organo jurisdikzionala;

6. artikulua

Eskumen judiziala

1. Erregelamendu hau aplikatzeko, dena delako gaiari aplikatu behar zaizkion erkidego-zuzenbideko arauen arabera erabakiko da eskumen judiziala; bereziki, 44/2001/EE Erregelamenduaren arabera.

2. Hala ere, kreditua pertsona batek (kontsumitzaileak) bere jarduera profesionaletik kanpokotzat jo ahal den helburu baterako egindako kontratu bati buruzkoa bada, eta, halaber, demandatua kontsumitzailea bera bada, demandatuak – 44/2001/EE Erregelamenduko 59. artikulua emandako definizioaren arabera– bizileku duen estatu kideko organo jurisdikzionalak baino ez dute izango eskumenik.

7. artikulua

Ordaintzeko europar errekerimendua eskatzea

¹ EO L 12, 2001.1.16koa, 1. or. Erregelamendu horren azken aldaketa hau da: 2245/2004/EE Erregelamendua, Batzordearena (EO L 381, 2004.12.28koa, 10. or)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Ordaintzeko europar errekerimenduaren eskaera I. eranskinean dagoen A inprimakian aurkeztuko da.

2. Eskaeran hauek adierazi beharko dira:

a) aldeen izenak eta helbideak, bai eta, egokia bada, haien ordezkarienak ere, hala nola eskaera aurkeztu zaion organo juridikzionalarenak;

b) zorraren zenbatekoa, printzipala barne, eta, hala egokituz gero, interesak, kontratu-zigorrek eta kostuak;

c) zorraren gaineko interesak eskatzen badira, interes-tasa eta interes horiei dagokien aldia, non eta ofizioz ez zaion gehitzen printzipalari legezko interes bat, jatorriko estatu kideko zuzenbideari jarraiki.

d) eskatzeko arazoia, zorraren oinarritzat argudiatutako inguruabarren deskribapena barne, eta, hala egokituz gero, eskatutako interesena.

e) zorra egiaztatzeko frogabideen deskribapena;

f) eskumen judizialerako irizpideak, eta

g) arazoa, artikulua zentzuan, mugaz gaindikoa dela.

3. Eskaeran, demandatzaileak adieraziko du emandako informazioa, bere uste zintzoaren arabera, egiazkoa dela, eta onartuko du nahita egindako gezurrezko edozein adierazpenek bidezko zigorrak ekar liezazkiokeela, jatorriko estatu kideko zuzenbidearen arabera.

4. Demandatzaileak, eskaeraren eranskin batean, adierazi ahal izango dio organo juridikzionalari ez duela nahi, demandatua kontra egonez gero, dagokion prozesu zibil arruntera aldatzea. . Hori ez da eragozpen izango demandatzaileak geroago horren berri eman diezaion organo juridikzionalari, baina, betiere, errekerimendua egin baino lehen.

5. Eskaera paperean aurkeztuko da, edo komunikatzeko beste edozein bide erabiliz, euskarri elektronikoa barne, baldin eta jatorriko estatu kideak onartzen badu, eta eskura badago jatorriko organo juridikzionalan.

6. Eskaerak demandatzailearen sinadura izan beharko du, edo, egokia bada, haren ordezkariarena. Eskaera bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu bada, 5. paragrafoari jarraiki, sinatu egingo da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko abenduaren 13ko 1999/93/EE Zuzentarauko 2. artikuluko 2. paragrafoaren arabera; izan ere, zuzentarau horrek sinadura elektronikorako erkidego-esparrua ezartzen du ⁽¹⁾. Sinadura hori onetsi egingo da jatorriko estatu kidean, eta ezin izango da baldintza gehigarriak ezarri.

Hala ere, sinadura elektronikoko hori ez da eskatuko, baldin eta jatorriko estatu kideko organo juridikzionalan komunikaziorako sistema elektronikoko alternatibo bat badago, baimendutako eta aurrez erregistratutako erabiltzaile jakin batzuek hura baliatzeko modua badute, eta erabiltzaile horiek ziurtasunez identifika badaitezke. Estatu kideek komunikazio-sistema horien berri emango diote Batzordeari.

8. artikulua

Eskaeraren azterketa

Ordaintzeko europar errekerimendu-eskaera bat aurkeztu zaion organo juridikzionalak ahalik eta lasterren eta eskaeraren inprimakian oinarrituta aztertu beharko du betetzen ote diren 2., 3., 4., 6., eta 7. artikuluetan adierazitako baldintzak eta eskaera ondo oinarrituta dagoen. Azterketa prozedura automatizatu bat izan ahal izango da.

9. artikulua

Eskaera osatzeko edo zuzentzeko aukera

¹ EOL 13, 2000.1.19koa, or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. 7. artikuluko baldintzak betetzen ez badira, organo jurisdikzionalak eskaera osatzeko edo zuzentzeko aukera emango dio demandatzaileari, eskaera argi eta garbi oinarririk gabea edo onartezina izan ezean. Organo jurisdikzionalak II. eranskinean dagoen B inprimakia erabiliko du horretarako.

2. Organo jurisdikzionalak eskaera osatzeko edo zuzentzeko galdatzen badio demandatzaileari, zirkunstantziei egokitutako denbora-epe bat zehaztuko du. Organo jurisdikzionalak epe hori nahi beste luzatu ahal izango du.

10. artikulua

Eskaeraren aldaketa

1. 8. artikuluan aipatutako baldintzak eskaeraren zati bati dagokionez soilik betetzen badira, organo jurisdikzionalak horren berri emango dio demandatzaileari, III. eranskineko C inprimakiaz baliatuta. Demandatzaileari eskatuko zaio onar edo bazter dezala ordaintzeko europar errekerimendu-proposamen bat, organo jurisdikzionalak erabakitako kopurukoa, eta bere erabakiaren ondorioak jakinaraziko zaizkio. Organo jurisdikzionalak bidalitako C inprimakia itzuliz erantzungo du demandatzaileak, eta, horretarako, organo horrek 9. artikuluko 2. paragrafoaren arabera adierazitako epea izango du.

2. Demandatzaileak organo jurisdikzionalaren proposamena onartzen badu, organo horrek ordaintzeko europar errekerimendu bat egingo du, 12. artikuluaaren arabera, demandatzaileak onartutako eskaeraren zatiari dagokionez. Hasierako kredituaren gainerako zatiarekiko ondorioak zuzenbide nazionalaren arabera arautuko dira.

3. Demandatzaileak ez badu bidaltzen bere erantzuna organo jurisdikzionalak zehaztutako epean, edo ez badu onartzen haren proposamena, organoak osorik gaitzetsiko du ordaintzeko europar errekerimenduaren eskaera.

11. artikulua

Eskaeraren gaitzespena

1. Organo jurisdikzionalak eskaera gaitzetsiko du, baldin eta:

a) ez badira betetzen 2., 3., 4., 6. eta 7. artikuluetan adierazitako baldintzak, edo

b) eskaera argi eta garbi oinarririk gabekoa bada, edo

c) demandatzaileak ez badu bidaltzen bere erantzuna organo jurisdikzionalak 9. artikuluko 2. paragrafoaren arabera erabakitako epean, edo

c) demandatzaileak ez badu bidaltzen bere erantzuna organo jurisdikzionalak erabakitako epean, edo ez badu onartzen organoaren proposamena, 10. artikuluaaren arabera. Demandatzaileari gaitzespenaren arrazoiak jakinaraziko zaizkio, IV. eranskinean dagoen D inprimakiaren bidez.

2. Ezingo da errekurtsorik jarri eskaeraren gaitzespenaren aurka.

3. Eskaera gaitzestea ez da eragozpen izango demandatzaileak bere kreditua erreklama dezan ordaintzeko beste europar errekerimendu bat eskatuz edo estatu kide bateko zuzenbidearen arabera finkatutako beste edozein prozesu erabiliz.

12. artikulua

Ordaintzeko europar errekerimendua egitea

1. 8. artikuluan aipatutako baldintzak betetzen badira, organo jurisdikzionalak ahalik eta lasterren egingo du ordaintzeko europar eskaera, eta, arau orokor gisa, eskaera aurkeztu eta 30 eguneko epean, V. eranskinean dagoen E inprimakiaren bidez. Demandatzaileak eskaera osatu, zuzendu edo aldatzeko erabilitako denbora ez da sartuko 30 eguneko epearen barruan.

2. Ordaintzeko europar errekerimendua eskaera-inprimakiaren kopia batekin batera egingo da. Horretan ez da jasoko demandatzaileak A inprimakiaren I. eta II. eranskinetan emandako informazioa.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Ordaintzeko europar-errekerimenduan demandatuari jakinaraziko zaio honako hauetako bat aukeratu ahal izango duela: a) errekerimenduan adierazitako zenbatekoa ordaintzea demandatzaileari, edo, bestela, b) errekerimenduaren aurka agertzea, eta, horretarako, errekerimendua jakinarazi eta 30 eguneko epean, aurkakotasun-idazki bat helaraztea jatorriko organo juridikzionalari.

4. Ordaintzeko europar-errekerimenduan honako hau jakinaraziko zaio demandatuari: a) errekerimendua, demandatzaileak emandako informazioan ez beste ezertan oinarrituta egin zen, eta organo juridikzionalak ez du hura egiaztatu; b) errekerimendua betearazle bihurtuko da, organo juridikzionalan ez bada aurkezten, 16. artikuluan adierazitakoaren arabera, aurkakotasunezko idazki bat; c) aurkakotasunezko idazkia aurkezten bada, prozesuak aurrera jarraituko du jatorriko estatu kideko organo juridikzionalan, kasuan kasuko prozesu zibil arrunteko arauen arabera, non eta demandatzaileak ez duen berariaz eskatu, hipotesi horretan, prozesua amaitzeko.

5. Organo juridikzionalak ziurtatuko du errekerimendua zuzenbide nazionalaren arabera jakinarazten zaiola demandatuari, eta, horretarako, 13., 14. eta 15. artikuluetan agindutako gutxieneko baldintzak betetzen dituen bideren bat erabiltzen dela.

13. artikulua

Jakinarazpena, demandatuak hartu izanaren adierazpena egiten duela

Ordaintzeko europar errekerimendua jakinarazpena egin behar den estatuko zuzenbide nazionalaren arabera egingo da, honako era hauetakoren batean: a) Jakinarazpen pertsonala, demandatuak sinatutako hartu izanaren adierazpen bidez ziurtatua, bertan hartze-data ageri dela; b) Jakinarazpen pertsonala, pertsona eskudunak sinatutako dokumentu bidez ziurtatua, honakoak adieraziz bertan: demandatuak dokumentua jaso zuela, edo uko egin ziola bidezko arrazoirik gabe dokumentua jasotzeari, eta jakinarazpenaren data; c) Postaz egindako jakinarazpena, demandatuak sinatutako eta birbidalitako hartu izanaren adierazpen bidez ziurtatua, bertan ageri delarik hartze-data; d) Bitarteko elektronikokoak erabiliz egindako jakinarazpena –telekopiaz edo posta elektronikoz, esaterako–, bertan ageri delarik demandatuak sinatutako edo berbidalitako hartze-data.

14. artikulua

Jakinarazpena, demandatuak hartu izanaren adierazpena egin gabe

1. Ordaintzeko europar errekerimendua jakinarazpena egin behar den estatuko zuzenbide nazionalaren arabera egingo zaio demandatuari, honako era hauetakoren batean:

a) Jakinarazpen pertsonala, demandatuaren bizilekuan, helbide berean bizi diren pertsoneri edo leku horretan enplegatuta daudeneri egina;

b) Demandatua bere kontura diharduen langilea bada, edo pertsona juridikoa, jakinarazpen pertsonala, demandatuaren merkataritza-establezimenduan, hark enplegatutako pertsoneri;

c) Errekerimendua demandatuaren postontzian uztea;

d) Errekerimendua posta-bulego batean edo herri-agintari eskudunen eskuetan uztea, eta hori idatziz jakinaraztea demandatuaren postontzian, baldin eta idatzizko jakinarazpenean argi eta garbi adierazten bada idazkia judiziala dela, edo bere eragin juridikoa jakinarazpena gauzatzea dela, eta, beraz, epe egokiak zenbatzen hasteko data zehaztea.

e) Posta bidezko jakinarazpena, hartu izanaren adierazpenik gabekoa, 3. paragrafoaren arabera; betiere demandatuak bizilekua jatorriko estatu kidean badu;

f) Bitarteko elektronikoen bidez, hartu izana entregaren baieztapen automatiko baten bitartez ziurtaturik, betiere demandatuak aurretik eta berariaz onartu badu jakinarazpena egiteko bide hori.

2. Erregelamendu honi dagokionez, onartezina izango da jakinarazpena 1. paragrafoaren arabera egitea, demandatuak bizilekua non duen ziur jakin ezean.

3. 1. paragrafoko a), b), c) eta d) idatz-zatien arabera egindako jakinarazpenaren fede emango da honako modu hauetakoren baten bitartez:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- a) Jakinarazpena egin duen pertsona eskudunak sinatutako dokumentu bat, honako hauek ageri direla:
- i) Jakinarazpena egiteko erabilitako modua, eta
 - ii) Jakinarazpena egiteko eguna, eta,
 - iii) Errekerimendua demandatua ez den pertsona bati jakinarazi bazaio, pertsona horren izena eta demandatuarekin duen erlazioa, edo, bestela,
- b) 1. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietako ondorioetarako, jakinarazpena jaso duen pertsonak hartu izanaz egindako adierazpena.

15. artikulua

Jakinarazpena ordezkari bati egitea

13. edo 14. artikuluen arabera jakinarazpena, halaber, demandatuaren ordezkari bati egin ahal izango zaio.

16. artikulua

Ordaintzeko europar errekerimenduaren aurkako jarrera

1. Ordaintzeko europar errekerimenduaren aurkako idazkia aurkeztu ahal izango du jatorriko organo juridikzionalan demandatuak, VI. eranskineko F inprimakia erabiliz; inprimaki hori, ordaintzeko europar errekerimenduarekin batera bidaliko zaio.
2. Aurkakotasun-idazkia demandatuari errekerimendua jakinarazi eta 30 eguneko epean igorriko da.
3. Demandatuak zorraren aurka dagoela adierazi beharko du bere idazkian, eta ez du arrazoitu beharrik izango.
4. Aurkakotasunezko idazkia paperean aurkeztuko da, edo komunikatzeko beste edozein bide erabiliz, euskarri elektronikoa barne; idazkia jatorriko estatu kideak onartu behar du, eta jatorriko organo juridikzionalan egon behar du eskuragarri.
5. Aurkakotasunezko idazkiak demandatuaren sinadura izan beharko du, edo, hala badagokio, haren ordezkariarena. Aurkakotasunezko idazkia, 4. paragrafoari jarraiki, euskarri elektronikoa aurkeztu bada, 1999/93/EE Zuzentarauko 2. artikuluko 2. paragrafoaren arabera sinatu beharko da. Sinadura hori jatorriko estatu kidean onetsiko da, eta ezin izango da beste baldintzarik ezarri. Hala ere, sinadura elektronikoa ez da eskatuko jatorriko estatu kideko organo juridikzionalan komunikaziorako sistema elektronikoa alternatibo bat egonez gero eta baimendutako eta aurrez erregistratutako erabiltzaile-talde jakin batek hura baliatzeko modua edukiz gero, betiere erabiltzaile horiek ziurtasunez identifika badaitezke. Estatu kideek komunikazio-sistema horien berri emango diote Batzordeari.

17. artikulua

Aurkakotasun-idazkia aurkeztearen ondorioak

1. Aurkakotasunezko idazkia 16. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako epean aurkezten bada, prozesuak aurrera jarraituko du jatorriko estatu kideko organo juridikzional eskudunetan, dagokion prozesu zibil arrunteko arauen arabera, non eta, demandatzaileak, kasu horretan, ez duen berriaz eskatzen prozesuari amaiera ematea. Demandatzaileak bere kreditua Europako gainbegiratze-prozesuaren bidez erreklamatu badu, zuzenbide nazionalak, ondorengo prozesu zibil arruntean, ezingo dio inolaz ere kalterik eragin haren posizioari.
2. Bestalde, 1. paragrafoari dagokionez, prozesu zibil arruntera aldatzean, jatorriko estatu kideko zuzenbideari jarraituko zaio. 3. Demandatuak aurkakotasunezko idazkia aurkeztu duela jakinaraziko zaio demandatzaileari, bai eta prozesu zibil arruntera egindako edozein aldaketa ere.

18. artikulua

Betearazteko indarra

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Idazkia jaso ahal izateko behar den denbora kontuan hartuta, 16. artikuluko 2. paragrafoan erabakitako epean ez bada aurkeztu aurkakotasunezko idazkirik jatorriko organo jurisdikzionalan, azken horrek, berandutu gabe, betearazletzat joko du ordaintzeko europar errekerimendua, VII. Eranskinen G inprimakia baliatuta. Organo jurisdikzionalak jakinarazpen-data egiaztatuko du.
2. Gainera, 1. paragrafoa alde batera utzi gabe, betearazpen-beharraren baldintza formaletan jatorriko estatu kideko zuzenbideari jarraituko zaio.
3. Organo jurisdikzionalak ordaintzeko europar errekerimendu betearazlea bidaliko dio demandatzaileari.

19. artikulua

Exequatur-a kentzea

Ordaintzeko europar errekerimendu bat, jatorriko estatu kidean indar betearazlea hartu badu, ezagutu eta betearazi egingo da gainerako estatu kideetan, eta ez da beharrezkoa izango betearazteko inolako adierazpenik egitea, eta, halaber, ez da aukerarik egongo haren ezagutzaren aurka egiteko.

20. artikulua

Berrikustea ohiz kanpoko kasuetan

1. 16. artikuluko 2. paragrafoan erabakitako epea bukatu ondoren, demandatuaren eskubidea izango da jatorriko estatu kideko organo jurisdikzional eskudunari eskatzea egin dezala ordaintzeko europar errekerimenduaren berrikuspena, honako inguruabar hauek gertatzen badira:

a)

i) ordaintzeko errekerimendua 14. artikuluan jasotako moduetako batean jakinarazi da, eta

ii) jakinarazpena ez zaio garaiz egin, bere defentsa ongi antolatzeke denbora izateko, eta ezin zaio horren erantzukizuna egotzi, edo

b) demandatuak ezin izan du kredituaren aurka egin, ezinbesteko arrazoiengatik, edo bere arduratik kanpo dauden ezohiko zirkunstantziengatik, betiere kasu batean zein bestean lastertasunez jokatu badu.

2. 16. artikuluko 2. paragrafoan erabakitako epea bukatu ondoren, demandatuaren eskubidea izango da, halaber, jatorriko estatu kideko organo jurisdikzional eskudunari eskatzea egin dezala ordaintzeko europar errekerimenduaren berrikuspena, baldin eta begi-bistakoa bada errekerimendu hori argi eta garbi oker egin dela, Erregelamendu honetan jasotako baldintzak kontuan hartuta, edo salbuespenezko beste edozein gorabeherarengatik.

3. Organo jurisdikzionalak ez badu onartzen demandatuaren eskaera, 1. eta 2. paragrafoetan berrikuspena egiteko jasotako arrazoietakoa bat ere ez dela aplikagarria argudiatuta, ordaintzeko europar errekerimenduak indarrean jarraituko du. Organo jurisdikzionalak erabakitzen badu berrikuspena justifikatuta dagoela 1. eta 2. paragrafoetan jasotako arrazoietakoren batengatik, ordaintzeko europar errekerimendua baliogabetzat eta ondorioz gabekotzat joko da.

21. artikulua

Betearazpena

1. Erregelamendu honetako xedapenak alde batera utzi gabe, errekerimendua betearazi behar den estatu kideko zuzenbideari jarraituko zaio betearazpen-prozeduretan. Ordaintzeko europar errekerimendu bat, indar betearazlea hartu badu, betearazpena egin behar den estatu kidean emandako edozein ebazpen betearazle bezala betearaziko da, baldintza bereberen arabera.

2. Betearazpena beste estatu kide batean egiteko, demandatzaileak honako hauek aurkeztu beharko dizkie estatu kide horretan betearazteko eskumena duten agintariei:

a) Ordaintzeko europar errekerimenduaren kopia bat, jatorriko organo jurisdikzionalak betearazletzat joa, bere egiazkotasuna erabakitzeke beharrezko baldintzak betetzen dituena, eta

b) beharrezkoa izanez gero, ordaintzeko europar errekerimenduaren itzulpena, errekerimendua betearazi behar den estatu kideko hizkuntza ofizialera egindakoa, edo, estatu kide horrek zenbait hizkuntza ofizial baditu, betearazi behar den tokiko

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

prozedura judizialean erabiltzen den hizkuntza ofizialera edo erabiltzen diren hizkuntza ofizialetako batera egindakoa, estatu kide horretako zuzenbidearen arabera, edo errekerimendua betearazi behar den estatu kideak onargarritzat jo duen beste hizkuntza batera egindakoa. Estatu kide bakoitzak adierazi ahal izango du bereak ez izan eta Europar Batasuneko erakundeetan erabiltzen diren hizkuntza ofizialetatik zein onar ditzakeen ordaintzeko europar errekerimenduan. Estatu kideetako batean horretarako gaitutako pertsona batek ziurtatuko du itzulpena.

3. Demandatzaile batek estatu kide bati eskatzen badio beste estatu kide batean egindako ordaintzeko europar errekerimendua betearazteko, ezingo zaio eskatu kausiorik edo gordailurik egiteko, haren izena edozein izanda ere, ez atzerritarra izateagatik, ez egoitza edo bizilekua errekerimendua betearazi behar den estatu kidean ez izateagatik.

22. artikulua

Betearazpena ukatzea

1. Demandatuak eskatuta, errekerimendua betearazi behar den estatu kideko organo jurisdikzional eskudunak uko egingo dio hura betearazteari, baldin eta ordaintzeko europar errekerimendua bateraezina bada beste edozein estatu kidek edo hirugarren herrialde batek alde zuzenetik emandako ebazpen edo errekerimendu batekin, betiere hauek gertatuz gero:

- a) lehenagoko ebazpenak edo errekerimenduak xede bera du, eta alderdiak ere berberak dira, eta
- b) lehenagoko ebazpenak edo errekerimenduak betearazpena egin behar den estatu kidean onartua izateko behar diren baldintzak betetzen ditu, eta
- c) Jatorriko estatu kideko prozedura judizialean ezin izan da bateraezintasuna argudiatu.

2. Halaber, betearazpena ukatu egingo da demandatuak eskatuta, baldin eta ordaintzeko europar errekerimenduan adierazitako zenbatekoa ordaindu badio demandatzaileari; ukatu ere, ordaindutako neurriaren arabera ukatuko da.

3. Ordaintzeko europar errekerimendua, funtsari dagokionez, ezingo da inola ere berrikusi betearazpeneko estatu kidean.

23. artikulua

Betearazpena etetea edo mugatzea

Demandatuak berrikuspena eskatu badu 20. artikuluari jarraiki, betearazpeneko estatu kideko organo jurisdikzional eskudunak, demandatuak eskatuta, honako hauek egin ahal izango ditu:

- a) betearazpen-prozedura kautelazko neurrietara mugatzea, edo, bestela,
- b) betearazpena organo jurisdikzional eskudun horrek erabakiko duen bermea eratzearen mende jartzea, edo, bestela,
- c) ezohiko egoeretan, betetze-prozedura etetea.

24. artikulua

Ordezkaritza

Ez da eskatuko abokatu batek edo zuzenbideko beste profesional batek ordezkatzea honako hautentzat:

- a) demandatzailea, ordaintzeko europar errekerimendua eskatzeari dagokionez;
- b) demandatua, ordaintzeko europar errekerimenduaren aurka azaltzeari dagokionez.

25. artikulua

Tasa judizialak

1. Europar estatu kide batean europar ordainketa-errekerimendu baten kontrako oposizioa gertatuz gero, Europako gainbegiratze-prozesu baten eta haren ondoriozko prozesu zibil arruntaren tasa judizialak, guztira, ez dira izango alde zuzenetik Europako gainbegiratze-prozesurik gabeko prozesu zibil arrunt bati legezkiokkeen tasak baino handiagoa.

2. Erregelamendu honi dagokionez, tasa judizialen barruan organo jurisdikzionalari ordaindu beharreko tasak eta eskubideak egongo dira, eta horien zenbatekoa zuzenbide nazionalaren arabera erabakiko da.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

26. artikulua

Zuzenbide prozesal nazionalarekiko lotura

Erregelamendu honetan berariaz ukitu ez diren prozesu-kontu guztiek zuzenbide nazionalari jarraituko diote.

27. artikulua

1348/2000/EE Erregelamenduarekiko lotura

Erregelamendu honek ez du baztertzen Kontseiluaren 2000ko maiatzaren 29ko 1348/2000/EE Erregelamenduaren aplikazioa; izan ere, erregelamendu hori arlo zibileko edo merkataritza-arloko dokumentu judizialak eta estrajudizialak estatu kideetan jakinarazteari eta lekualdatzeari buruzkoa da ⁽¹⁾.

28. artikulua

Jakinarazpen-gastuei eta betetzeari buruzko informazioa

Estatu kideek lagundu egingo dute honako hauei buruzko informazioa jende orori eta sektore profesionalei ematen: a) dokumentuen jakinarazpen-gastuak, eta b) errekerimendua betearazteko eskumena duten agintariak, 21., 22. eta 23. artikulua aplikatze aldera, bereziki Kontseiluaren 2001/470/EE Erabakiaren arabera arlo zibilean eta merkataritza-arloan sortutako Europar Sare Judizialaren bidez ⁽²⁾.

29. artikulua

Eskumen judizialari, berrikuspen-prozedurei, komunikabideei eta hizkuntzei buruzko informazioa

1. Estatu kideek, beranduen jota 2008ko ekainaren 12an, hauek jakinaraziko dizkiote Batzordeari:

- a) ordaintzeko europar errekerimendua egiteko eskumena duten organo jurisdikzionalak;
- b) berrikuspen-prozedura eta organo jurisdikzional eskudunak, 20. artikulua aplikazioaren ikuspuntutik;
- c) Europako gainbegiratzeko-prozesuaren helburuetarako onartutako komunikazio-bideak, eta organo jurisdikzionaletan eskura daudenak.
- d) 21. artikuluko, 2. paragrafoko b) idatz-zatiaren arabera onartutako hizkuntzak.

Estatu kideek informazio horri eragiten dion geroko edozein aldaketa jakinaraziko diote Batzordeari.

2. Batzordeak jendearen eskura jarriko du 1. paragrafoaren arabera jakinarazitako informazioa, *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuz, edo beste edozein bitarteko egoki erabiliz.

30. artikulua

Eranskinen aldaketak

Eranskinetako inprimakiak teknikoki eguneratu edo egokituko dira, eta bermatu guztiz bat datozela erregelamendu honetako xedapenekin, 31. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozeduraren arabera.

31. artikulua

Komitea

¹ EO L 160, 2000.6.30ekoa, 37. or.

² EO L 174, 2001.6.27koa, 25. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Batzordeak 44/2001/EE Erregelamenduko 75. artikulua sortutako Komitearen laguntza izango du.
2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 *bis* artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, Erabaki horren 8. artikuluan xedatutakoa betez.
3. Komiteak bere barne-araudia onartuko du.

32. artikulua
Berrikuspena

Batzordeak, beranduen jota 2013ko abenduaren 12an, txosten xehatu bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari; txosten horretan Europako gainbegiratze-prozesuaren funtzionamendua aztertuko da. Gainera, prozeduraren funtzionamenduaren ebaluazioa ere jasoko du, bai eta hark estatu kide bakoitzean izandako eraginaren ebaluazio zabala ere.

Horretarako, eta guztiz bermatzearen behar bezala hartzen direla kontuan Europar Batasunean izandako praktikarik onenak, eta horiek legeak hobeto egiteko printzipioen adierazgarri direla, estatu kideek informazioa emango diote Batzordeari Europako gainbegiratze-prozesuaren mugaz gaindiko funtzionamenduari buruz. Informazio horrek estatu kideetako tasa judizialei, prozesuaren azkartasunari, eraginkortasunari, erabilerraztasunari eta barruko gainbegiratze-prozesuei buruzko datuak jasoko ditu. Egoki izanez gero, Batzordearen txostenarekin batera, egokitze proposamenak aurkeztuko dira.

33. artikulua
Indarrean sartu

Erregelamendu hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Erregelamendu hau 2008ko abenduaren 12az geroztik izango da aplikagarria, 28., 29., 30. eta 31. artikulua izan ezik, 2008ko ekainaren 12tik aurrera aplikatu ahal izango baitira.

Erregelamendu hau bete beharrekoa izango da bere elementu guztietan, eta zuzenean aplikagarria estatu kide bakoitzean, Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatuaren arabera.

Estrasburgon emana, 2006ko abenduaren 12an.

Europako Parlamentuaren izenean,
Presidentea
J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean,
Presidentea
M. PEKKARINEN